1. Un fichero donde registren de forma individualizad todos los datos administrativos y técnicos de las personas usuarias del servicio: identificación, número de expediente, fecha de solicitud, fecha de inicio de la prestación del servicio, modalidad, intensidad, tareas que componen, modificaciones e incidencias, cambios en la situación de la persona usuaria, comunicaciones realizadas a los servicios sociales, fecha de finalización del servicio.
2. Un libro de sugerencias y reclamaciones.
3. Soportes informativos adaptados verbalmente y por escrito, en lenguaje de fácil comprensión para el manejo de las personas que participan en la prestación con el objeto de garantizar el derecho a la información de la persona usuaria.
4. Conexión on line con el Ayuntamiento para favorecer la consulta de todas las personas usuarias del servicio.
5. Un manual de buenas prácticas, donde se describen detalladamente los modelos de atención directa, los procedimientos y modos de actuar en una correcta prestación del servicio.

CLÁUSULA DUODÉCIMA MEDIDAS EN CASO DE HUELGA O INTERRUPCIÓN LABORAL DEL SERVICIO

a) En el supuesto eventual de huelga en el sector al que pertenecen el personal adscrito al servicio, la entidad adjudicataria estará obligada a prestar los servicios mínimos que fije la Administración competente.
b) Previo a la celebración de la huelga, la entidad adjudicataria deberá presentar un informe-propuesta de servicios mínimos, siendo el personal municipal quien le indique los servicios mínimos que deberán prestarse de acuerdo, en su caso, con las resoluciones de las Administraciones competentes.
c) De igual modo, deberá informar al Ayuntamiento de las incidencias y desarrollo de la huelga.

FIC/CIF: P-4800200-J

Sinatzaile / Firmante: MARIA JOSE MARTIN CABELLO Data: 2024-04-26 10:02:52(UTC) Fecha: 26/04/2024 10:02:52 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: ABANTO ZIERBENAKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE ABANTO ZIERBENA Data: 2024-05-10 09:05:46(UTC) Fecha: 10/05/2024 09:05:46 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación (7419:1c0-f105-4a42-8aba-80c175869d9) Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

Gizarte-Ekintza \ Accion Social
Avda. El Minero, 2
48500 Abanto-Zierbena, Bizkaia
Tel. 94 636 20 00 | Fax 94 636 01 98

d) Una vez finalizada la mencionada huelga, la entidad adjudicataria deberá presentar otro informe en el que se indiquen los servicios mínimos prestados y el número de horas o servicios que, en su caso, que se hayan dejado de prestar. Dicho informe deberá presentarse en el plazo máximo de 7 días tras la finalización de la huelga.

e) Una vez comprobados los incumplimientos producidos como consecuencia de la huelga, el Ayuntamiento procederá a valorar la deducción que corresponda en la factura del período en que se haya producido la huelga legal. Dicha valoración se comunicará por escrito a la entidad adjudicataria para su deducción en la factura correspondiente o, en su caso, en la del siguiente período de facturación.

CLAUSULA DÉCIMOTERCERA. RESPONSABILIDADES.

La entidad adjudicataria se responsabilizará ante el Ayuntamiento de las faltas cometidas por su personal y quedará obligada al resarcimiento de todos los daños que causen con motivo de la defectuosa prestación del servicio en las instalaciones y bienes, tanto públicos como privados, a partir de la fecha de adjudicación del contrato.

En ningún caso incurrirá en responsabilidad alguna el Ayuntamiento, sino sólo la adjudicataria, en relación con el incumplimiento de las obligaciones que la entidad adjudicataria tenga contraídas con su personal.

Igualmente, serán responsabilidad del contratista todos los daños, perjuicios y accidentes de cualquier naturaleza que sean ocasionados a terceras personas por su personal, maquinaria o como consecuencia de la ejecución de los trabajos objeto del contrato. A tal fin, estará obligada a suscribir el correspondiente seguro de responsabilidad civil para garantizar los mencionados riesgos, con coberturas mínimas de 300.000 €/siniestro

CLÁUSULA DECIMOCUARTA. CONDICIONES LINGÜISTICAS DEL CONTRATO

La entidad adjudicataria del Servicio está obligada a disponer de personal que pueda dar respuesta en el ejercicio de su actividad en las dos lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

En Abanto Zierbena a fecha de la firma electrónica.

FIC/CIF: P-4800200-J

Sinatzaile / Firmante: MARIA JOSE MARTIN CABELLO Data: 2024-04-26 10:02:52(UTC) Fecha: 26/04/2024 10:02:52 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: ABANTO ZIERBENAKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE ABANTO ZIERBENA Data: 2024-05-10 09:05:46(UTC) Fecha: 10/05/2024 09:05:46 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación (7419 1cd0-f105-4a42-8aba-80c175869d9) Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

Gizarte-Ekintza \ Accion Social
Avda. El Minero, 2
48500 Abanto-Zierbena, Bizkaia
Tel. 94 636 20 00 | Fax 94 636 01 98

ABANTO ZIERBENAKO UDALAREN ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA KONTRATATZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

FIC/CIF: P-4800200-J

ABANTO ZIERBENA
UDALA • AYUNTAMIENTO

Gizarte-Ekintza \ Accion Social
Avda. El Minero, 2
48500 Abanto-Zierbena, Bizkaia
Tel. 94 636 20 00 | Fax 94 636 01 98

innpulso
Ciudad de la Ciencia y la Innovación

FIC/CIF: P-4800200-J

AURKIBIDEA

	ORRIALDEA
LEHENENGO KLAUSULA	4
- XEDEA	4
BIGARREN KLAUSULA	4
- DEFINIZIOA	4-5
- PRINTZIPIO OROKORRAK	5
HIRUGARREN KLAUSULA	6
- HELBURUAK	6
LAUGARREN KLAUSULA	7
- KONTRATATU BEHARREKO ZERBITZUAK	7
- ARRETA PERTSONALA	7-8
- ETXEKO ARRETARAKO JARDUKETAK	8-9
- INKLUSIO SOZIO-KOMUNITARIORAKO JARDUKETAK	9-10
- PREBENTZIO ETA SUSTAPEN SOZIALERAKO JARDUKETAK	10
- ETXEBIZITZAN AUTONOMIA SUSTATZEKO LAGUNTZA TEKNIKOAK EMATEA	10-12
- KANPOAN UZTEN DIREN JARDUKETAK	12
BOSGARREN KLAUSULA	13
- ERABILTZAILEAK	13-14
SEIGARREN KLAUSULA	14
- ZERBITZUAREN ARLOAK ETA LUZAPENA	14-15
ZAZPIGARREN KLAUSULA	15
- ANTOLAKUNTZA ETA FUNTZIONAMENDUA	15-17
ZORTZIGARREN KLAUSULA	17
- BALIABIDE PERTSONALAK ETA MATERIALAK	17-18
BEDERATZIGARREN KLAUSULA	18
- ENPRESA ADJUDIKAZIODUNAREN ETA ERABILTZAILEEN ARTEKO HARREMANA	18

ABANTO ZIERBENA
UDALA • AYUNTAMIENTO

Gizarte-Ekintza \ Accion Social
Avda. El Minero, 2
48500 Abanto-Zierbena, Bizkaia
Tel. 94 636 20 00 | Fax 94 636 01 98

innpulso
Ciudad de la Ciencia y la Innovación

HAMARGARREN KLAUSULA 19
- UDALAK ZERBITZUA KONTROLATZEA 19-20

HAMAIKAGARREN KLAUSULA 20
- ENPRESA ADJUDIKAZIODUNAREN BETEBEHARRAK 20-22

HAMABIGARREN KLAUSULA 22
1. NEURRIAK GREBETAN EDO ZERBITZUAREN LAN-ETENDURA BADAGO 22-23

HAMAHIRUGARREN KLAUSULA 23
- ERANTZUKIZUNAK 23-24

HAMALAUGARREN KLAUSULA 24
- KONTRATUA GAUZATZEKO HIZKUNTZA BALDINTZAK 24

FIC/CIF: P-4800200-J

LEHENENGO KLAUSULA: XEDEA.

Baldintza teknikoen agiri honen xedea da Abanto Zierbenako Udaleko Etxeko Laguntza Zerbitzua (ELZ) kontratatzeko baldintzak ezartzea. Zerbitzu hori integrala, polibalentea eta komunitate-mailakoa da, eguneroko jarduerei ekiteko garaian beren kasa moldatzeko zailtasunak dituzten pertsonei edo haien familiei zuzendutakoa; halaber, haien bizi-kalitatea hobetzeko helburua du, prebentzio,- laguntza eta/edo errehabilitazio-programa baten bidez. Programa hori batik bat etxeko laguntzari eta zaintza pertsonalari dagozkion eginkizunetan zehazten da, pertsonek etxean eta ohiko inguruneetan jarrai dezaten laguntzeko.

BIGARREN KLAUSULA: DEFINIZIOA ETA PRINTZIPIO OROKORRAK.

A.- DEFINIZIOA

Etxeko Laguntza Zerbitzua laguntza- eta prebentzio-izaera duen zerbitzua da, eta xedea da mendekotasun-egoeran edo mendekotasun-arriskuan dauden erabiltzaileei laguntza ematea

Gizarte-Ekintza \ Accion Social
Avda. El Minero, 2
48500 Abanto-Zierbena, Bizkaia
Tel. 94 636 20 00 | Fax 94 636 01 98

etxean geratu ahal izateko. Horretarako, etxeko laguntza eta laguntza pertsonala eskaintzen zaizkio erabiltzaileari etxean bertan; horrek ahalbidetzen du erabiltzailea etxean moldatzea eta komunitate-inguruan integratzea, isolamendu-egoerak saihesteko. Arreta pertsonala jasotzen dutenek edo mendekotasun-arriskuan daudenek baino ezin izango dute Etxeko Laguntza Zerbitzua jaso.

Abanto Zierbenako errealitatea irudikatze aldera, garrantzitsua da azpimarratzea Etxeko Laguntza Zerbitzuak 19.351,14 zerbitzu-ordu eman zituela 2023an.

Datu horiek ez dute esan nahi Udalak hileko gutxieneko ordu-kopuru bat eskaini behar dituela. Hortaz, zehaztutako gehieneko aurrekontutik, zerbitzua emango den ordu-kopurua aldatu ahal izango da, eta horrek ez du esan nahi kontratua aldatu behar denik edo inolako indemnizazio-beharrik egongo denik.

B.- PRINTZIPIO OROKORRAK

- Normalizazio- eta integrazio-printzipioa: zerbitzua erabiltzaileen etxearen, familiaren, gizartearen eta kulturaren ingurunean emango da, ahal den neurrian lehendik dauden baliabide normalizatuak erabiliz.
- Autonomia-printzipioa: ahalik eta gehien bultzatu behar da erabiltzailearen autonomia.
- Partaidetza-printzipioa: erabiltzaileak arreta-planean parte hartzea sustatuko da.
- Osotasun-printzipioa: emango den arreta integrala izan beharko da, eta era askotako laguntzak eskainiko dira, erabiltzaileek dituzten askotariko beharrak asetzeko.
- Profesionalizazio-printzipioa: zerbitzuaren arduradunek eta arreta zuzeneko langileek dagozkien gaitasun profesionalak izan beharko dituzte.
- Indibidualizazio-printzipioa: egoera baloratu eta diagnostikoa egin ondoren, zerbitzuaren onuradun guztiek arreta-plan pertsonalizatua izan ahalko dute, euren beharretara egokitua.
- Osagarritasun-printzipioa: zerbitzua beste prestazio tekniko, ekonomiko edo teknologikoekin osatu ahal izango da.
- Prebentzio-printzipioa: prebentzioa kontuan izan behar du zerbitzuak. Izan ere, erabiltzaileak okerrera egitea eta horren ondorioz datorren instituzionalizazioa saihestuko dira.
- Inklusio-printzipioa: zerbitzua emateak norbanakoa eta/edo familia komunitatean barne hartzeko ekintzak aurreikusi ahal izango ditu.

HIRUGARREN KLAUSULA: HELBURUAK.

a) Pertsonen autonomia mantentzea edo hobetzea, erabiltzaileen autonomiaren galera prebenitzea edo hura orekatzea. Horretarako, laguntza osagarria edo erabatekoa eskaintzen zaie eguneroko bizitzako oinarrizko zereginak egiteko, beren zaintza

FIC/CIF: P-4800200-J

Gizarte-Ekintza \ Accion Social
Avda. El Minero, 2
48500 Abanto-Zierbena, Bizkaia
Tel. 94 636 20 00 | Fax 94 636 01 98

pertsonalerako beharrezkoak direnak, eta/edo eguneroko bizitzako jarduera osagarriak gauzatzeko.

b) Ahal dela, erabiltzaileak bere etxean jarrai dezala ahalbidetzea eta ostatu-zerbitzu edo egoitza-zentro batean sartzea atzeratzea edo ekiditea. Betiere, bizi-kalitate onargarria duela bermatu beharko da.
c) Erabiltzaileen segurtasun-sentsazioa indartzea.
d) Erabiltzailea babesteko gizarte- eta familia-arloko sarea osatzen duten zaintzaileei babesa ematea eta beren arreta-lana neurri batean arintzen laguntzea. Horren xedea da haiek ere baldintza egokiak izan ditzatela beren garapen pertsonal, profesional eta sozial propiorako.
e) Noizean behin zaintzaile nagusia, normalean erabiltzaileari arreta ematen dion hori, ordezkatzea, aldi baterako ez dagoenean (atsedenaldi bat hartu badu, adibidez).
f) Beste zerbitzu batzuek esku hartzea ekarriko luketen behar-egoerak antzematea. ELZ bateragarria izango da mendekotasunerako arreta-zerbitzu guztiekin, salbuespen batekin: ostatu-zerbitzu edo egoitza-zentro emandako arreta iraunkorra. Mendekotasun-arriskuan dauden pertsonei dagokienez, ELZren gehieneko maiztasuna I. gradurako aurreikusitako gutxieneko maiztasunera egokituko da.

FIC/CIF: P-4800200-J

LAUGARREN KLAUSULA: KONTRATATU BEHARREKO ZERBITZUAK.

Kontratatu beharreko zerbitzuak erabiltzaileekin egindako jardueren ezaugarrien arabera definituko dira, eta, oro har, Banakako Arreta Programan planteatutako helburuak lortzeko lanak aintzat hartuta definituko dira.

Lanak erabiltzaileek beren kabuz izan ezin dituzten gaitasun eta mugen arabera erabakiko dira, familiaren beharrezko laguntzarekin. Horrez gain, haien autonomia eta gaitasunak mantentzea sustatuko da.

Abanto Zierbenako Udaleko Gizarte-zerbitzuen esku egongo da beti jarduerak, funtzioak, intentsitatea eta maiztasuna zehaztea, kasuan-kasuan aztertuta.

Kontratatuko diren zerbitzuak hauek izango dira: arreta eta laguntza pertsonala, etxeko arreta, inklusio sozio-komunitarioa eta prebentzio eta sustapen soziala.

1.- ARRETA PERTSONALA.

Arreta pertsonala dela ulertzen da laguntza partziala edo erabateko laguntza jasotzen duten pertsonei emandako zerbitzua, zaintza pertsonalerako beharrezkoak diren eguneroko bizitzako jarduera instrumentalak egin ahal izateko:

Hauek dira egunerokotasuneko oinarrizko jardueretarako arreta pertsonaleko jarduerak:

Gizarte-Ekintza \ Accion Social
Avda. El Minero, 2
48500 Abanto-Zierbena, Bizkaia
Tel. 94 636 20 00 | Fax 94 636 01 98

a) Higiene pertsonala. Higiene pertsonaleko ohitura pertsonaletan entrenatzea, besteak beste: janzten/biluzten laguntzea, ohean sartzea, komuna, eguneroko garbitasuna, ilearen higienea, norberaren arropa eta oheko arropa aldatzea barne.
b) Elikadura eta medikamentuen kontrola. Elikadurari dagokionez preskribatutako plana jarraitzen laguntzea eta medikuak adierazitako aho-medikazioa jarraitzea, esklusioen atalean adierazitakoa aintzat hartuta. Erabiltzaileak botiken blister pertsonalizatua izango du (Medikamentuen Sistema Pertsonalizatua, MSP), Udalaren eta Bizkaiko Farmazialariaren Elkargoaren artean sinatutako hitzarmena betez.
c) Etxean mugitzeko laguntza (altxatzea, oheratzea, ibiltzea). Protesien zaintza.
d) Estimulatzeko ariketa errazak.
e) Aisialdi-jarduerak etxean.
f) Elikagaiak erostea eta janaria prestatzea.
g) Zaintzaileei laguntzea, informazioa eta aholku ematea zaintza-lanak egiteko beharrezko jarraibideei buruz.
h) Ezbeharrak eta babesgabetasun egoerak detektatzea, baita tratu txarren egoerak ere, eta koordinatzaileari berri ematea.
i) Etxetik kanpo izaera pertsonaleko kudeaketetan laguntzea: bankua, osasuna, baliabideak izapidetzea, dokumentuak eskatzea eta ematea… Aldez aurretik gizarte-zerbitzuei jakinaraziz gero, egoera berezietan eta ezohikoetan, udalerritik kanpo ere egin ahal izango dira kudeaketak.

FIC/CIF: P-4800200-J

2.- ETXEKO ARRETA-MAILAKO JARDUKETAK

Arreta pertsonala dela ulertzen da laguntza partziala edo erabateko laguntza jasotzen duten pertsonei emandako zerbitzua, erabiltzailea bizi den etxebizitza mantentzeko beharrezkoak diren eguneroko bizitzako jarduera instrumentalak egin ahal izateko:

a) Etxeko gaitasunak entrenatzea, etxea zaintzea (ur-hornidurak, argia, altzariak, etxeko hornidura).
b) Etxea garbitzea. Erabiltzaileen oheak egitea barne, eta etxeko gauzak eta ohiko hornidura kontserbatzea eta mantentzea. Sukaldeko tresnak garbitzea, hozkailua eta armairuak garbitu eta antolatzea. Balkoiak eta terrazak garbitzea.
c) Elikagaiak eta lehen mailako beste behar batzuk erostea, pertsona edo familia ezin denean etxetik irten edo ez duenean inolako laguntza-sarerik.
d) Zaborra edukiontzira botatzea.
e) Janariak prestatzea eta beste lan batzuk, hala nola arropa garbitzea, pasaratzea eta lisatzea.

Gizarte-Ekintza \ Accion Social
Avda. El Minero, 2
48500 Abanto-Zierbena, Bizkaia
Tel. 94 636 20 00 | Fax 94 636 01 98

f) Garbiketa orokorra egitea. Urtean behin garbiketa orokor eta desinfekzio bana egin behar da Etxeko Laguntza Zerbitzuaren erabiltzaileen etxebizitza bakoitzean Udalak balorazio egin aurretik.
g) Etxetresna elektronikoak eta telefonoa erabiltzen erakustea (mikrouhina, telelaguntza, garbigailua, etab.).
h) Arropa etxean garbitzea eta eskegitzea, eta arropa modu soilean ordenatzea eta lisatzea.
i) Garbitzeko produktuak erosten laguntzea.
j) Altzari, etxeko hornidura eta abarretan laguntzea.

3.- INKLUSIO SOZIO-KOMUNITARIORAKO JARDUKETAK.

Erabiltzaileari laguntzeko jarduerak dira. Ezohikoak izango dira eta aldez aurretik Ekintza Sozialeko Arloak baloratu beharko ditu.

a) Gizarte- eta familia-inguruneetan parte hartzeko jardueretan laguntzea, hala nola paseoak, aisialdi-jarduerak eta hezkuntzako eta prestakuntzako denbora libreko jarduerak.
b) Etxetik kanpo laguntzea zenbait kudeaketa egiten: kontsulta medikoak, errezeta kudeatzea eta jasotzea, funtsezko agiriak izapidetzea, eguneko zentroan laguntzea.
c) Etxetik kanpo laguntzea kudeaketa pertsonaletan, hala nola bisita terapeutikoak eta dokumentuak eskatu eta ematea.

4.- PREBENTZIO ETA SUSTAPEN SOZIALERAKO JARDUKETAK.

Jarduera hauek arrisku-egoera prebenitzeko eta erabiltzaileen gaitasunak sustatzeko jarduerak dira:

a) Erabiltzaileen egoera fisiko, psikiko eta emozionalean arazoak edo alterazioak detektatzea.
b) Bere inguruneko harremanak sustatzea, parte-hartze sozial handiagoa izan dezaten.
c) Bakardade-egoerak detektatzea.
d) Autonomia estimulatzea.
e) Ezbehar-arriskuak, arduragabetasun edo tratu txarren egoerak prebenitzea eta detektatzea, eta horiei buruzko informazioa ematea.

5.- ETXEBIZITZAN AUTONOMIA SUSTATZEKO LAGUNTZA TEKNIKOAK EMATEA.

FIC/CIF: P-4800200-J

ABANTO ZIERBENA
UDALA • AYUNTAMIENTO

Gizarte-Ekintza \ Accion Social
Avda. El Minero, 2
48500 Abanto-Zierbena, Bizkaia
Tel. 94 636 20 00 | Fax 94 636 01 98

innpulso
Ciudad de la Ciencia y la Innovación

FIC/CIF: P-4800200-J

Prestazio-teknologikotzat hartuko da mugikortasuna, beste prestazio batzuen kudeaketa eta ELZko erabiltzaileen bizi-kalitatea hobetzen laguntzen duten ekipamendu eta bitarteko teknikoak, baita lan profesionalean laguntzen dutenak ere.
Honako ekipamendu hau eskatuko da:

Etxean erabiltzailearen babes eta arreta pertsonalerako laguntzak:

- Bainuontzi edo dutxarako 6 aulki, gurpilekin edo gurpilik gabe.
- Bainurako 10 barra.
- 30 komun-egokigailu
- Bainuontziaren luzera edo sakonera murrizteko 30 laguntza-produktu.
- Burua ohean garbitzeko gailuak.
- Podologiako 10 zerbitzu urtean.
- Ile-apaindegiko 10 zerbitzu urtean.
- Disko birakariak, gurpil-aulkiak edo beste batzuk errazago mugitzeko.

Erabiltzaileen mugikortasunerako laguntzak

- 20 makulu
- 20 bastoi
- eskorgak
- gurpil-aulkiak
- Erabiltzaileen beharretara egokitutako 4 garabi.

Altzariak eta etxebizitzetarako egokitzapenak

- 6 ohe artikulatu.
- 20 hanka-luzagarri
- oherako 6 laguntza-triangelu.

Elementu horien garraioa, entrega eta bilketa erakunde adjudikaziodunak egingo du; zerbitzu hori doakoa izango da Udalarentzat eta erabiltzailearentzat. Gizarte-zerbitzuek eskaeraren beharra eta bideragarritasuna baloratuko dituzte eta ematea egokia den erabakiko dute.

6.- KANPOAN UZTEN DIREN JARDUKETAK.

Honako jarduketa hauek ez dira zerbitzuak sartzen:

Gizarte-Ekintza \ Accion Social
Avda. El Minero, 2
48500 Abanto-Zierbena, Bizkaia
Tel. 94 636 20 00 | Fax 94 636 01 98

a) Lagun egiteko eta paseatzera joateko zerbitzua, eskatzen den zerbitzu bakarra denean.
b) Etxe berean bizi diren familiako kideei edo adiskideei arreta zuzena ematea, baldin udal-zerbitzu teknikoen aburuz zerbitzuaren erabiltzaile ez badira.
c) Etxean bizi diren gainerako pertsonei zuzenean mesede egiten dieten etxeko lanetan laguntzea.
d) Izaera edo eduki sanitarioko prestazioak, gaitasun profesional espezifikoa behar badute, gauean edo zehaztutako ordutegitik kanpo zaindu, ospitalean zaindu eta laguntzea badakarte, eta, oro har, beste administrazio edo organismo publikoen eskumenekoak badira.
e) Etxean konponketa profesionalak egitea.
f) Udaleko zerbitzu teknikoek prestatutako txostenean aurreikusten ez diren zeregin guztiak.

FIC/CIF: P-4800200-J

BOSGARREN KLAUSULA. ERABILTZAILEAK.

Oro har, hona hemen zerbitzuaren erabiltzaileen profila: autonomia galdu izanaren ondorioz, ohiko etxebizitzan geratu ahal izateko eguneroko oinarrizko jardueretarako laguntza zerbitzua aldi baterako edo iraunkortasunez behar duten pertsonak eta/edo familia unitateak, autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legean ezarritakoari jarraituz.

Zehazki, hauek izan ahalko dira etxeko laguntza zerbitzuko erabiltzaileak:

1. Abanto Zierbenan erroldatutako pertsonak.
2. Mendekotasun-egoeran dauden pertsonak, autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legean ezarritakoa betez, edo adin-mugarik gabe mendekotasun-arriskuan dauden eta/edo urriaren 6ko 185/2015 Dekretuan (Gizarte-zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoa) ezarritako baldintzak betetzen dituztenak.
3. Mendekotasun-maila aitortu gabe duten pertsonak: Eusko Jaurlaritzaren arabera gizarte-bazterketa egoeran edo arriskuan dauden pertsonak edo familiak eta/edo udaleko gizarte-zerbitzuen langile teknikoen behar-txostena dutenak, banakako eta/edo familiako arreta-plana egin aurretik.

Gizarte-Ekintza \ Accion Social
Avda. El Minero, 2
48500 Abanto-Zierbena, Bizkaia
Tel. 94 636 20 00 | Fax 94 636 01 98

4. Arrisku-egoeran dauden adingabeak dituzten familiak, haurrak eta nerabeak babesteko arrisku- eta babesgabetasun-egoerak balioesteko tresnaren arabera (230/2011 Dekretua, azaroaren 8koa, BALORA-Euskal Autonomia Erkidegoan haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko daleko eta lurraldeko gizarte-zerbitzuetan arrisku-egoeren larritasuna balioesteko tresna onesten duena). Kasu horretan, beharrezkoa izango da Euskal Autonomia Erkidegoan haur eta nerabeei arreta emateko eta zaintzeko udaleko edo lurraldeko gizarte-zerbitzuetako langile teknikoek txostena egitea, banakako eta/edo familiako arreta-plana egin aurretik.
5. Halaber, erabiltzaileak izan ahalko dira Abanto Zierbenako Udaleko Gizarte Ekintzako arloko langileen irizpidearen arabera zerbitzu hori jasotzeko aukera duten pertsonak eta eguneroko oinarrizko jarduerak egiteko zailtasunak dituzten pertsonak, Gizarte-zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretuak eta horrek garatzen duen araudiak adierazitakoa betez.

FIC/CIF: P-4800200-J

SEIGARREN KLAUSULA: ZERBITZUAREN ARLOAK ETA LUZAPENA.

Zerbitzua Udalak une oro zehazten duen arlora zabalduko da, Gizarte Ekintzako arloak detektatutako beharrak aintzat hartuta.

Gizarte-zerbitzuek erabiltzaileen beharra baloratzeko eskala bat erabiliko dute, eta horren arabera erabakiko da beharrezko baldintzak betetzen dituen eta zein izango den kasu bakoitzerako proposatutako ordu-kopurua. Halaber, ELZak gehieneko arreta-moduluak izango ditu mendekotasun-mailaren arabera, Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearekin bat.

Etxeko Laguntza Zerbitzua onuradunen etxe partikularrean emango da, eurena izanik edota familiarena izanik, betiere Abanto Zierbena udalerriaren barruan.

Baliteke onuraduna zaintzeko garaian txandak egitea familiaren barruan, eta hori aintzat hartuta, zerbitzua etxe bat baino gehiagotan eman ahal izango da, baldin eta Abanto Zierbena udalerriaren barnean badaude eta Udalak baimena ematen badu.

Oro har, zerbitzua urteko egun guztietan emango da, astelehenetik ostiralera. Izaera mugatua izango badu ere, zerbitzua asteburuetan eta jaiegunetan eman ahal izango zaie mendekotasun-egoera handian daudenei (III. gradua), abenduaren 14ko 39/2006 Legean (pertsonen autonomia sustatzeari eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoa) eta bere garapen araudian ezarritakoari jarraikiz, eta araubide honetan zehaztutako zaintza pertsonalerako jarduketen kasuan baino ez.

ABANTO ZIERBENA
UDALA • AYUNTAMIENTO

Gizarte-Ekintza \ Accion Social
Avda. El Minero, 2
48500 Abanto-Zierbena, Bizkaia
Tel. 94 636 20 00 | Fax 94 636 01 98

Ohiko ordutegia astelehenetik ostiralera izango da, jaiegunak kenduta. Jai-orduak larunbat, igande eta jaiegunetan egindakoak izango dira. Jaieguntzat joko dira Eusko Jaurlaritzak ofizialki halakotzat hartzen dituenak, baita tokiko jaiegunak ere.

ZAZPIGARREN KLAUSULA: ANTOLAKUNTZA ETA FUNTZIONAMENDUA

Udalak, administrazio-antolakuntzaren bidez, kasuan-kasuan eta dagokion balorazioa eginda, emango den zerbitzuaren ezaugarriak, iraupena eta edukia zehaztuko ditu, baita erabiltzaileak ordaindu beharreko kostua ere.
Udalak etxeko laguntza-zerbitzuan pertsona bati **alta** ematea erabakitzen duen bakoitzean, arduradunak fax edo mezu elektroniko bidez jakinaraziko dio adjudikaziodunari, eta adierazpenean honako datu hauek emango dira:

- Izen-abizenak.
- Erabiltzailearen eta familia-ingurunearen egoera pertsonala.
- Emango diren zerbitzuak, ordutegia eta maiztasuna, baita zerbitzua emateko ordutegi zehatza ere.

Zerbitzuaren edukia **aldatuko** balitz, antzeko ezaugarriak dituen txostena bidaliko da.

Zerbitzua **bajan** ematen bada, txosten bat bidaliko da erabiltzailearen identifikazio-datuak eta baja emateko eguna adieraziz.

Alta eta bajan emateko eta aldaketak egiteko jakinarazpenak idatziz egingo dira beti, jaso dela egiaztatzen duten bitartekoaren bidez.

Udaleko langile teknikoek larrialdi-kasua dela baloratzen badute, zerbitzua udal-jakinarazpena egin eta hurrengo 24 orduetan eman beharko da. Hasiera batean jakinarazpena telefonoz egin ahalko da, eta, ondoren, idatziz egiaztatuko da.
Erakunde adjudikaziodunak ahalik eta aldaketa gutxien egin beharko ditu ordutegietan, esleitutako zereginetan eta etxeko laguntzaile titularren ordezkapenetan, etxeko arloan nahasteak eta aldaketak ekidite aldera. Erakundeek uste badute zerbitzuan aldaketak egin behar direla, arrazoi justifikatua egon beharko du, eta lehenik eta behin Udalari jakinarazi beharko zaio, eta, ondoren, erabiltzaileari.

Gerora sortutako larrialdiko egoeretan, erabiltzailearentzako kaltegarria izango balitz, enpresa adjudikaziodunak aurreko paragrafoan adierazitako aldaketak egin beharko ditu, eta 5 orduko epean jakinarazi beharko du zeintzuk diren aldaketak.

FIC/CIF: P-4800200-J

Gizarte-Ekintza \ Accion Social
Avda. El Minero, 2
48500 Abanto-Zierbena, Bizkaia
Tel. 94 636 20 00 | Fax 94 636 01 98

Enpresa adjudikaziodunak zerbitzua ematen jarraitu ahal izateko, Udalak emandako jarraibideak aintzat hartu beharko ditu etxean arreta emateko moduari eta modalitateari dagokionez, eta denbora, maiztasun, langile eta abarretan egindako aldaketetara egokitu beharko dira, agiri honetako baldintzekin bat.

Bestalde, enpresa adjudikaziodunak berehala eman beharko dio Udalari zerbitzua behar bezala emateari eragiten dion edozein intzidentzia edo egoeraren berri, baita erabiltzailearen egoeran dauden aldaketen berri ere, beharrezko neurriak hartu ahal izateko ahalik eta azkarren.

ZORTZIGARREN KLAUSULA. BITARTEKO PERTSONALAK ETA MATERIALAK.

Enpresa adjudikaziodunak zerbitzua egoki emateko beharrezko bitarteko, giza-baliabide eta baliabide materialak eman beharko ditu.

Zerbitzua egoki koordinatzeko, erakunde adjudikaziodunak **koordinazio-arduradun** bat esleitu beharko du, eta pertsona hori zerbitzua kudeatzeaz, antolatzeaz eta koordinatzeaz arduratuko da, eta honako zeregin hauek bete behako ditu:

a) Jarduerak zuzentzea eta erabiltzaile bakoitzari esleitutako zerbitzuak egoki ematen direla kontrolatzea.
b) Udalari etengabe zerbitzuaren egoeraren eta sortutako intzidentzien berri ematea, eta Udalak enpresari emandako jarraibideak aintzat hartzea erabiltzaile bakoitzari arreta aproposa emateari eta zerbitzuaren funtzionamendu aproposari dagokion guztian. Hala, gutxienez hilean behin, kontratuaren langile arduradunekin bilduko da.
c) Udaleko arduradunek jakinarazitako alta, bajan eta zerbitzuan egindako aldaketen berri izatea.
d) Altan dauden erabiltzaileei emandako zerbitzuan egin litezkeen aldaketak proposatzea eta orientatzea.
e) Laguntza-zerbitzua emango duten laguntzaileak erabiltzaileen etxebizitzetan aurkeztea, eta egin litekeen edozein aldaketaren berri ematea.

Koordinatzaileak zein etxean laguntza ematen duten langileek lana egiteko titulazioa eta gaitasun egokia izan beharko dute, zerbitzua ahalik eta egokien ematen dutela bermatzeko. Halaber, langileek 8 orduko oinarrizko prestakuntza izan beharko dute gutxienez berdintasunean.

BEDERATZIGARREN KLAUSULA. ENPRESA ADJUDIKAZIODUNAREN ETA ERABILTZAILEEN ARTEKO HARREMANA.

FIC/CIF: P-4800200-J

Gizarte-Ekintza \ Accion Social
Avda. El Minero, 2
48500 Abanto-Zierbena, Bizkaia
Tel. 94 636 20 00 | Fax 94 636 01 98

Erakunde adjudikaziodunak eta horren kargura dauden langileek edozein motatako gatazka pertsonal ekidin beharko dute erabiltzaileekin, eta halakorik gertatuz gero, Udaleko gizarte-zerbitzuei jakinarazi beharko zaie 48 orduko epean.

Zerbitzuetarako kontratatutako langileek indarreko lan-araudiko segurtasun- eta higiene-neurriak bete beharko dituzte, eta izaera pribatuko datu eta informazioa babestu beharko dute.

HAMARGARREN KLAUSULA. UDALAK ZERBITZUA KONTROLATZEA.

Udala enpresa adjudikaziodunarekin harremanetan jarri ahalko da beharrezkotzat jotzen duenean, erabiltzaileei eta emandako zerbitzuaren funtzionamenduari buruzko informazioa jasotzeko.
Halaber, Udaletik egiaztatu ahal izango da zerbitzua ematen dela eta horren kalitatea, egokitzat jotzen dituen bitartekoen bidez.

Zerbitzuaren jarraipena egite aldera, erakunde adjudikaziodunak informazio dokumentatua aurkeztu beharko du honako maiztasun honekin:

<u>EGUNERO</u>

a) Zerbitzuen ordutegia aldatzea, ezusteko arrazoiren bat dela eta.
b) Etxeko laguntzailea aldatzea, arrazoiren bat dela eta.
c) Intzidentzia garrantzitsuak.

<u>ASTERO</u>

a) Ezarritako zerbitzuetan etxeko laguntzailean egindako aldaketak.
b) Zerbitzuaren erabiltzaileekin sor litezkeen arazoak.
c) Zerbitzua areagotzeko edo murrizteko beharrari buruzko informazioa.

<u>HILERO</u>

Eskaintzen diren zerbitzuen fakturazioa. Erabiltzaileko eta zerbitzu-motako eskainitako orduak.

<u>URTERO</u>

Zerbitzuren erabiltzaile bakoitzeko txosten soziala aurkeztu beharko da. Jardueraren memoria eta emandako zerbitzuaren ebaluazioa.

HAMARGARREN KLAUSULA. ENPRESA ADJUDIKAZIODUNAREN BETEBEHARRAK.

FIC/CIF: P-4800200-J

Gizarte-Ekintza \ Accion Social
Avda. El Minero, 2
48500 Abanto-Zierbena, Bizkaia
Tel. 94 636 20 00 | Fax 94 636 01 98

Enpresa adjudikaziodunak, agiri honetako beste klausula batzuetan jasotakoez gain, betebehar hauek izango ditu:

a) Enpresaren Kudeaketa Eredua aurkeztea, zerbitzua egoki ematen dela bermatzeko.
b) Erakundeak egoitza-bulegoa izatea, eta zerbitzua emateko bitarteko pertsonal eta material nahikoak ematea.
c) Zerbitzua zazpi eguneko epean ematen hastea, Udaleko gizarte-zerbitzuen alta-agindua jasotzen duen unetik aurrera zenbatzen hasita. Larrialdi-kasuetan, zerbitzua gehienez 24 orduko epean hasi beharko da, alta-agindua jasotzen denetik zenbatzen hasita. Agindua telefonoz egin ahal izango da, eta, ondorioz, dagokionez, administrazio-ebazpen bidez berretsi beharko da.
d) Dagokion akreditazioa duen arduradun bat izendatzea. Pertsona hori Udaleko gizarte-zerbitzuekin koordinatu beharko da eta zerbitzuaren jarraipena egin beharko du.
e) Langileen mendekotasun-erlaziotik, gastuak eragin ditzaketen gertaeretatik eta langileekin izandako lan-harremanetatik eratorritako gastu guztiak bere gain hartzea. Azken horri lotuta, langileak ez dira inolaz ere udal-langiletzat hartuko.
f) Zerbitzuaren enpresa adjudikaziodunak aldez aurretik zerbitzu bakoitzerako langileak hautatu eta prestatu beharko ditu; hala, erabiltzailearen profilera gehien egokitzen dena esleituko da. Horretarako, zerbitzuaren enpresa adjudikaziodunek Urteko Prestakuntza Plana aurkeztu beharko dute, eta bertan lan-kategoria bakoitzeko eskainiko den prestakuntza-ordu kopurua adieraziko da.
g) Enpresak etxeko laguntzaileek eman beharreko zerbitzuaren izaeragatik aproposak diren arropa eta beste tresna batzuk eman beharko dizkie langileei.
h) Zerbitzua egoki kudeatzea bermatzen duten euskarri finkoak eta mugikorrak, PDAk, helbide elektronikoak eta programa informatikoak.
i) Maileguan laguntza tekniko hauek emango zaizkio, erabiltzaileek erabili ahal izateko: 1 garabi, 10 ohe artikulatu, 5 eskorga, 10 bastoi.
j) Udalari zerbitzuaren funtzionamenduari eragiten dion edozein intzidentzia edo egoeraren berri ematea. Horrez gain, erabiltzaileen egoeran egondako aldaketen berri ematea.
k) Zerbitzuaren erabiltzaileen aldetik edozein eskupeko edo ordain mota jasotzea debekatuta egongo da. Enpresa adjudikazioduna baldintza hori betetzeaz arduratuko da, eta izaera horretako edozein egoeraren berri eman beharko du.
l) Salbuespena izango da erabiltzaileak enpresari etxeko giltzak ematea. Kasu horretan, erabiltzaileak edo horren legezko arduradunak idatzizko baimena egin beharko du aldez aurretik, eta udal langileei jakinarazi beharko zaie. Edonola ere, giltzak erabiltzeko ardura enpresarena eta erabiltzailearena izango da, eta Udalari ezingo zaio inolaz ere ardura egotzi. Ez da zerbitzurik emango erabiltzailea ez badago.

FIC/CIF: P-4800200-J

Gizarte-Ekintza \ Accion Social
Avda. El Minero, 2
48500 Abanto-Zierbena, Bizkaia
Tel. 94 636 20 00 | Fax 94 636 01 98

Dokumentu hauek izan beharko ditu, eta Udalak uneoro horiek ikusteko eskubidea izango du:

1. Fitxategi bat, non banaka zerbitzuaren erabiltzaile guztien datu administratibo eta tekniko guztiak jasoko diren: identifikazioa, espediente-zenbakia, eskaera-data, zerbitzua hasteko eguna, modalitatea, maiztasuna, egindako lanak, aldaketak eta intzidentziak, erabiltzailearen egoeran egondako aldaketak, gizarte-zerbitzuei egindako komunikazioak eta zerbitzua amaitzeko eguna.
2. Iradokizunen eta erreklamazioen liburua.
3. Informazio-euskarriak, ahozkoak zein idatzizkoak. Euskarri horiek erraz ulertzeko modukoak izango dira, eta zerbitzua ematen duten pertsonek erabiliko dituzte, erabiltzaileek informazioa jasotzeko duten eskubidea errespetatzen dela bermatzeko.
4. On line konexioa Udalarekin, zerbitzuaren erabiltzaile guztiek kontsulta egin ahal izateko.
5. Jardunbide onen gidaliburua. Bertan, xehetasun osoz deskribatuko dira arreta zuzeneko ereduak, prozedurak eta jarduteko moduak, zerbitzua behar bezala ematen dela bermatzeko.

FIC/CIF: P-4800200-J

HAMABIGARREN KLAUSULA: NEURRIAK GREBETAN EDO ZERBITZUAREN LAN-ETENDURA BADAGO.

a) Zerbitzuari atxikitako langileen sektorean greba egongo balitz, erakunde adjudikaziodunak administrazio eskudunak zehaztutako gutxieneko zerbitzuak eman beharko ditu.
b) Greba egin aurretik, erakunde adjudikaziodunak gutxieneko zerbitzuen txosten-proposamena aurkeztu beharko du, eta udal-langileek adierazi beharko dute zeintzuk diren eskaini beharreko gutxieneko zerbitzuak, betiere administrazio eskudunen ebazpenekin bat.
c) Halaber, Udalari gorabeheren eta grebaren garapenaren berri eman beharko dio.
d) Greba amaituta, erakunde adjudikaziodunak beste txosten bat aurkeztu beharko du. Bertan emandako gutxieneko zerbitzuak eta eman ez diren ordu-kopurua edo zerbitzuak adieraziko dira. Txosten hori 7 eguneko epean aurkeztu beharko da gehienez, greba amaitzen denetik zenbatzen hasita.
e) Grebaren ondorioz bete ez diren zerbitzuak egiaztatu ondoren, Udalak kenketak egingo ditu legezko greba egin den aldiari dagokion fakturatik. Balorazio hori idatziz jakinaraziko zaio erakunde adjudikaziodunari, dagokion fakturatik kendu dezan, edo, bestela, hurrengo fakturazio-alditik.

HAMAHIRUGARREN KLAUSULA. ERANTZUKIZUNAK.

ABANTO ZIERBENA
UDALA • AYUNTAMIENTO

Gizarte-Ekintza \ Accion Social
Avda. El Minero, 2
48500 Abanto-Zierbena, Bizkaia
Tel. 94 636 20 00 | Fax 94 636 01 98

Udalaren aurrean, erakunde adjudikazioduna langileen hutsegiteetan erantzule izango da, eta nahitaez ordaindu beharko ditu zerbitzua behar ez bezala emateak instalazio eta ondasun publiko zein pribatuetan eragiten dituen kalte guztiak, zerbitzua adjudikatzen denetik aurrera.

Adjudikaziodunari egotziko zaio, eta inolaz ere Udalari, erakunde adjudikaziodunak bere langileekin adostutako betebeharrak urratzea.

Halaber, kontratistaren erantzukizuna izango da bere langileen, makinen edo kontratuaren xede diren lanak gauzatzearen ondorioz hirugarrenei eragindako edozein izaerako kalte-galerak edo ezbeharrak. Hori horrela, dagokion erantzukizun zibileko asegurua sinatu beharko du arrisku horiek estaltzen direla bermatzeko, eta gutxieneko estaldura 300.000 euro/ezbehar izango da.

FIC/CIF: P-4800200-J

HAMABOSGARREN KLAUSULA. KONTRATUA GAUZATZEKO HIZKUNTZA BALDINTZAK.

Zerbitzuaren erakunde adjudikaziodunak bermatu beharko du langileek Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan lan egin dezaketela.